



TTiPi -

TTAPPA

NAFARROA OINEZ - 83

—IRAILAK 18—





Doinua: "Hegoatik Ifarrera..."

NAFARROA OINEZ dela
Beratik notizia
Irailak hemezortzian
harat mundu guzia
gure hizkuntza zaharrak
egin dela jauzia
euskara nahi dugulako
berri eta bizia.

Bidasoa lami xoko
honetan bizi gara
bi mendi haundi ditugu
Larun ta Labiaga
irrintzi hau zabaltzeko
handik lau haizetara:
"Nahi ta behar dugulako
EUSKARA ESKOLARA".

ARABAN EUSKARAZ gogor
aleginak eginez
KILOMETROAK aurrerantz
eta pauso arinez
Bizkaian IBILALDIA
badabil zorionez

horrela ospatzen dugu
guk NAFARROA OINEZ.

Egunaren helburuak
nai badituzu jakin
hiru dira loturikan
hirurak elkarrekin:
IKASTOLA LABIAGA
LAGUNTZEKO ALEGIN,
EUSKARAREN ALDE eta
ESKOLARA SAR DADIN.

Hementxe gabilta denak
hau saltsa ta orantza!
herri erdia lanean
ajari eta dantza
bederen eman diogu
bizitza honi "martxa"
hau honela ikusirik
ezin gal esperantza!

Bertze gisara ordea
Iruñeko partean
agintari eskas txarrak
euskararen kaltean

Diputazioa patxadan
dagoen bitartean
euskara altxatu behar
gu guziona artean.

Larun gainean badugu
erraldoi bizarduna
lamien erreka eta
sorgin zulo iluna
agian agertuko da
hor Altzateko Jauna
eta ongi pasatzen dugun
aurten OINEZ eguna!

Su haundi bat eginen da
akaso behar bada
etsai sugetxar zitalak
botatzeko bertara
nonai bizi izan arren
euskaltzale bazara
IGANDEAN ETOR ZAITEZ
BIDASOKO BERARA.

KAPI



Denok ilusio berakin, Beran ez da noiz nahi horrelakorik ikusten, hagitz ederra izan zen.



“Nafarroa Oinez” honetan, antolatzaileak pentsatzen zuten baina neurri haundiagoan jortu da ekonomi helburua.


Hagitz organizazioe onak izan zen, lana horrela egin eta gauzak ongi ateratzen dire.




Euskara erabiltzea, euskara salbatzeko modu bakarra da.




350 lagun lanera lotu gara.





Abenduaren 12 an egin zen lehenbiziko bilera eta geroztik jende multzo eder bat lanean aritu gara.



Euskaldun bat gehiago izatea izanen zen nere helburua, bederen hori.



Izugarrizkoa izandu da: euskararen aldeko indarra ikusi baita.



Nafarroako problema bat azaldu da, instituzionen eskutatik utzia dagoena: euskararena. Nafarroa, Euskal Herriko ama baztertua dago.



Garmendiko Bordan eta Mitxin Bordan bazen jatekoa eta edatekoa.

Eguerdirako sagardorik gabe gelditu ginen. Hiru kaja arraultz gastatu genituen eta arratsaldeko bitatik lauetara tortilak egiten ez genuen abastorik ematen.



Erresponsabilitatea eta elkartasuna "Nafarroa Oinez"en.



Neurri batean euskal kontzientzia bultzatzea lortu dugu.




Nahiz guk ere besta ikusteko txirrinta izan, hainbertze jende ikustean izituta lanera jokatzen ginen.



Herri hau nahiz hil zorian egon ta euskara ere hil zorian egon, jendiak ikusten duenian gure herria desager-tzeko arriskuan dagoela, orduan bai gerala oraindik milaka eta milaka euskarari eutsi nahi diogunak eta hil nahi ez dugunak.

“Nafarroa Oinez” egunean ateratako argazkiak eta ondorengo egunetan bildutako iritziak, hemen azaltzen ditugu.




Orain dela bederatzirente, Berako guraso eta gazte talde batek, euskara aintzinera eramateko ikastola baten beharra ikusi zuen.


“GU” taldeak egin

“Nafarroa Oinez” en hiru helburu:

- gure euskal kontzientzia agertu eta bultzatu,
 - euskara eskoletan sartu,
 - ekonomia konpondu.
-



Joan den urteko Apirilan edo horrela, Berako Labiaga ikastolaren batzordeak “Nafarroa Oinez” egiteko erabakia hartu zuen.



Lau teillatu gainean, ilargia erdian eta zu goruntz begira...

Jaun agurgarriok:

Berako Labiaga Ikastolak Komunikabide horri bihotzez eskerrak eman nahi dizkio, NAFARROA OINEZ 83ak izan duen arraskatarako eskaini digun laguntzarengatik.

Halaber ezagutza hau, beren lanaz edo presentziaz, jaialdiaren arraskata lortzen lagundu diguten guztiei helerazi diezaiezuen eskatuko genizueke. Izan ere, aurretik ezarri genituen helburu kulturalak, ekonomikoak eta bestaburuarenak bete baitira.


OHARRA: Honez gain, NAFARROA OINEZ 83 ren diru kontuen behin-behineko balantzea bidaltzen dizuegu.

“NAFARROA OINEZ”.go ANTOLATZAILEEK

BERA, 1983 ko Irailaren 20
NAFARROA OINEZ 83-ren behin-behineko balantzea

KONTZENPUTAK	SARRERAK	GASTUAK	SARRERA GARBIA
Materiala	3.300.000,-	2.000.000,-	1.300.000,-
Ibilb. sarrerak	3.700.000,-		3.700.000,-
Subentz. Ofic.	1.300.000,-		1.300.000,-
Ibilb. ostatuk	3.700.000,-	2.200.000,-	1.500.000,-
Zabalkundea:	360.000,-		
Inprimategiak		200.000,-	
Paperak		200.000,-	-240.000,-
Irratiak		200.000,-	-700.000,-
Ikuskizunak		700.000,-	600.000,-
Enpresa-laguntzak	600.000,-		-100.000,-
Hainbat gastu		100.000,-	360.000,-
Koadro salmenta	360.000,-		
		GUZTIRA.....	7.720.000,-
		% 10, Nafarroako Ikastolen Elkarerentzat	772.000,-
		% 90, Berako Labiaga Ikastolarentzat	6.948.000,-

JENDETZA: Behin-behineko kontaktak kopuru hauek azaltzen dizkigu:
5.000 ibilgailu
15.000 pertsona




Ezar hegoak zure euskarari!



Ikastola sortu ezkeroz, euskara herriko bertze eskoletan ere sartu da.

Huts bat bakarrik, beratarrak euskara gutti egiten zuten.




Horrelako egun gehiago beharrezkoak dire, euskara aurrera eramateko.



Jendia arratsaldean hagitz kontent joaki zen.

Bera osoa euskararen inguruan mugitu da.



Bete betian!



Hainbertze jende ikustiak hau erakusten digu: euskararen alde jo ta ke aritziak merezi duela.



Nafarroako herri guztiak, euskara ikasteko eskubide osoan daude.



Berako ikastolaren bidea luzea eta latza izan da. Igandeko gertakizunekin haxe ikusi dugu argi: ikastolak zutik iraungo duela jendearen laguntza eta elkartasunari esker.

Gure etsaie kostako zaie gu desegitea!



Euskaldun sentitzen dena, aspalditik euskararen alde lanean ari da.



Ikusgarria nola jendeak ematen zuen dirua euskararen alde.




“Nafarroa Oinez” en ateri den diruari helburu publiko bat eman behar zaio; Berako ikastolari horrelako aukera bat ireki behar zaio.




Jendeak zintzo jokatu zuen, ingurunea errespetatuz.

Ekonomi helburua bete dugu, baina Nafarroaren euskalduntzearena?



Iparraldean aditzen dugunez, euskarari buruz ez dute nekea bertzerik. Irratietan aunitz entzun da “Nafarroa Oinez” eri buruz eta horrelako egun bat egin behar dutela aditu diegu.



Egun hortan bertan aritu nintzen pentsatzen eta etortzen zitzaidan, Lopategik, joan den urtian, Baldan bota zituen bertso haiek. Eta harek horrela zion, eta guk pizkat aldatuta erran genezake:

Hargatik gaude orain etsaien katigo
ekaitz zakarrenak gogor jo baitugu
ezin gaituztela hil nahiz eta eman kastigu
oraindik bagerala Bera da testigu.



Jende adintua ere harrituta zegoen, inoiz ere Beran ez zen hainbertze jende ikusi.